

ANOETA / Ipuin kontaketa saioa izango da gaur liburutegian

ANOETA. DV. Anoetako Udalak gaur ipuin kontaketa saio bat antolatu du herriko haur eta gazteentzat. Ipuin kontalaria Itziar Zubizarreta izango da, eta Lehen Hezkuntzako lehen eta hirugarren mailako hurrei zuzendutako ipuinak kontatuko ditu. Saioa 18:00etan hasiko da, eta beraz, bertara joateko asmoa dutenei puntualtasuna eskatzen zaie.

Eguberrietako ludoteka

Eguberri hauetarako Anoetako Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzeko izena emateko epea gaur amaitzen da. Ludoteka edo xake ikastaroan izen emateko azken eguna da gaur. Ludotekan L.H.ko lehen mailatik seigarren mailara arteko ikasleek parte hartu dezakete. Ludoteka Anoetako Herri ikastolan izango da 11:00etatik 13:00etara, abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilak 2tik 5era. Prezioa 10 eurokoa da.

Xake ikastaroa berriz, Lehen Hezkuntzako lehen eta laugarren maila bitarteko hurrek parte hartu dezakete, eta ludotekaren antzera, Ikastolan izango da, goizeko 10:00etatik 11:00etara. Ikastaroaren egunak 2006ko abenduaren 27 eta 29a eta 2007ko urtarrilaren 3 eta 5a izango dira. Ikastaro hau doan izango da.

Begiraleak

Eguberri hauetarako antolatutako ludotekarako begiraleak behar ditu Anoetako Udalak. Izen emateko azken eguna gaur izango da. Honetarako udaletxera joan beharko dute bulego ordutegian, 9:00etatik 13:00etara, edo 943 651200 telefonora deituz.